

G E T X O

2 0 0 6 / 2 0 0 7



EMAKUMEENTZAKO
JABEKUNTZA ESKOLA

2006-2007 Ikasturtea



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERRIUA
ERRIUA ARRIBO UDALA



Getxo
UDALA - AYUNTAMIENTO



Deuzarri Udaia
Ayuntamiento de Euzarri



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

JARDUERAK / IKASTAROAK

Emakumeentzako Jabekuntza
Eskolak bere hirugarren
ikasturtea hasi du. Aurreko
ikasturteetan Getxoko 300
emakume inguruk jardueretan
parte hartu dute, eta eskola
hausnarketa, prestakuntza
eta emakumeen arteko
topaketako espaziotzat
finkatu da.

Aurten, prestakuntzarekin
jarraituz gainera, eskolatik
partaidetzako jarduerak
sustatu behar ditugu, horrela
bada, ikastaroetan eskuratu
izan dituzten tresnak
publikoan praktikan jarri ahal
izango ditugu.

Sarrerako mintegia

Ikastaroak hasi baino lehenago sarrerako mintegia egingo da. Berau eskolan lehen aldiz matrikulatzen diren ikasleei zein aurreko urteetan ere parte hartu duten ikasleei zuzenduta egongo da. Bertan, eskolaren edizio berria aurkeztuko dute. Gainera, emakumeen jabekuntzari eta jendarte eta politikako partaidetzari buruzko alderdiak ere aurkeztuko dituzte.

Hurrengo lerroetan matrikulatutako ikasleak:

- Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna
- Komunikazioa

Mintegiaren eguna:

Urriak 18 (asteazkena) 19:00etatik 21:00etara
Villamonteko Kultur Etxean

Hurrengo lerroetan matrikulatutako ikasleak:

- Elkartasuna eta trukea munduko emakumeekin
- Partaidetza politikoa eta soziala

Mintegiaren eguna:

Urriak 19 (osteguna) 19:00etatik 21:00etara
Villamonteko Kultur Etxean

Nitasun femeninoa

Gaurko emakumeok gure amek bizi zituzten egoeren oso bestelakoei aurre egin behar diegu. Eskakizun berriak sinismen zaharrekin nahasten dira, eta gure tentsioak elikatzen dituzte eta zer egin, zer dagoen ondo, zer komeni zaigun... ez dakigula uzten gaituzte.

Tailer honetan gure ezinegonak ulertzeko eta geure burua hobeto ezagutzeko gako nagusiei helduko diegu. Haurtzaroko esperientziak garrantzitsuak direla baina gure etorkizuna ez dutela erabakitzen ikasiko dugu. Psikologiara hurbilduko gara berau aldaketarako tresna bihurtzeko.

Talde honek gogoeta eta ikaskuntzatik lan egingo du, ez da terapiako taldea.

Lekua: Villamonteko Kultur Etxea **Ordutegia:** Asteazkena, 17:00etatik 19:00etara

Iraupena: Urriaren 25etik maiatzaren 30era **Prezioa:** 15 €

Irakaslea: Norma Vázquez

Gu emakumeok: aldaketarako subjektua

Emakumeen nortasunaren elementuetan eta emakumeek gizonetikiko berdintasunean aurrera egiteko aurka egin behar diegun oraingo erronketan sakonduko dugu.

Plano kolektiboko emakumeen jabekuntzari buruzko oinarrizko proposamenak ezagutuko ditugu eta berau lortzeko bidean aurkituko ditugun zailtasunak ikusiko ditugu.

Lekua: Villamonteko Kultur Etxea **Ordutegia:** Asteazkena, 19:30etatik 21:30etara

Iraupena: Urriaren 25etik maiatzaren 30era **Prezioa:** 15 €

Irakaslea: Norma Vázquez

Eskakizuna: Aurreko ikasturteetan *Emakumeen Nortasuna eta Subjektibotasuna* edo *Munduko emakumeen literatura* ikastaroetan parte hartu izana.

Maitasuna ez da kontatu zigutena bezalakoa

Emakumeek eta gizonek bestelako ikaskuntzak eta esperientziak ditugu maitasuna denaren gainean. Askok dira maitasuna lehendabiziko tokian jartzen eta berau erabateko eta baldintzarik gabeko entrega egiten ikasi duten emakumeak, bere bizi-proiektua bigarren planoan gelditzen dela. Geure buruari galdetu behar diogu maitasunagatik zer “egiteko eta emateko” prest egongo ginatekeen.

Tailer honetan zehar maitasunezko mito ohikoenak argitu behar ditugu eta agindu arduragabeak argitara behar ditugu, maitasunaren ikusmolde berria eraikitzea eraiki daitekeela sinetsita, eta berau, hain zuzen ere, ez da kontatu ziguten edo asmatzen duguna bezalakoa.

Lekua: Gobelaurreko Boluntarioritza Zentroa
(Gobelaurre Parkeko behea)

Ordutegia: Ostirala: 16:00etatik 20:00etara
Larunbata: 10:00etatik 14:00etara eta
16:00etatik 20:00etara

Iraupena: Azaroak 10 eta 11

Prezioa: 5 €

Irakaslea: Marisa Rebolledo

Urtarriletik aurrera:

- Emakumeok eta mamuak. Gure beldurrak nola baztertu ikasiz

Berdintasunerako komunikatzen

Ikasturte honetan zehar dauden baliabideak erabiltzen ikasiko dugu irrati-programa diseinatu eta prestatzeko emakumeen ahotsak, iritziak eta esperientziak zabaltzeko mediotzat.

Aldez aurretik, gure beldurrak eta komunikazioan esku hartzen duten elementuak zein diren identifikatu behar dugu, horrela, bere ezagutza eta entrenamendutik teknikak eskura dituzten eta jendaurrean hitz egiteko zailtasunak gainditzeko edozein esparrutan. Halaber, hizkuntzak errealitateaz dugun ikuspegiak nola eragiten dugun ere aztertuko dugu, eta hizkuntza eta komunikazioaren erabilera ez sexista egiteko proposatzen diren alternatibak ikusiko ditugu.

Ikastaro hau hiru mintegik osatuta dago: Jendaurrean hitz egiteko teknikak, Hizkuntzaren erabilera ez sexista eta Emakumeen ahotsak uhinetan. Matrikula ikastaro osorako egin behar da.

Lekua: Villamonteko Kultur Etxea

Ordutegia: Osteguna, 17:00etatik 19:00etara

Iraupena: Urriaren 26tik maiatzaren 31ra

Prezioa: 15 €

Irakasleak: Miriam Ocio
Edurne Mendizabal
Kontxi Gómez

Urtarriletik aurrera:

- Jendaurrean hitz egiteko teknikak (euskaraz)

Partaidetza politikoa eta soziala lerroa

Emakumeen partaidetza politikoa

Emakumeen mugimenduen eta bere aldarrikapenen historia ezagutuko dugu, gauzen orden soziala aldatu zuten eta emakumeen partaidetza politiko eta soziala egun posible izateko oinarriak ezarri zituzten protagonistak eta ideiak gogora ekarriko ditugu.

Halaber, partaidetza horretarako oraindik dauden oztopoak ere aztertuko ditugu, hala gure inguruneetatik eraikiak nola geure buruengandik eraikiak, eta neurri zuzentzaileak proposatuko ditugu. Gainera, emakumeen ahotsa udal politiketan sartzea ahalbidetzen duten espazioak eta mekanismoak identifikatu eta erabiltzen ikasiko dugu.

Bukatzeko, gaur egungo eztabaida feministetan sakonduko dugu.

Ikastaro hau hiru mintegik osatuta dago: Partaidetza politikoa, Feminismoaren historia eta gaurkotasuneko eztabaida feministak. Matrikula ikastaro osorako egin behar da.

Lekua: Villamonteko Kultur Etxea

Ordutegia: Astelehena, 18,30etatik 20,30etara

Iraupena: Urriaren 23tik maiatzaren 28ra

Prezioa: 15 €

Irakasleak: Dominique Saillard
Saioa Hernández
Gloria Guzmán

Lidergoia eta taldeko lana

Generoak boterearen ariketan gure lanean, elkarteetan eta beste talde batzuetan parte hartzean nola eragiten duen hausnartuko dugu. Lantaldeak dinamizatzeke, erabakiak hartzeke eta erantzukizunak banatzeko teknikak ikasiko ditugu.

Lekua: Villamonteko Kultur Etxea

Ordutegia: Osteguna, 10:30etatik 12:30etara

Iraupena: Urriaren 26tik urtarrilaren 18ra

Prezioa: 5 €

Irakaslea: Miriam Ocio

Foro Irekia

Topaketa, eztabaida eta partaidetzako espazioa. Foroaren edizio honetan partaideek saioen edukia prestatzerakoan inplikazio handiagoa izan dezaten sustatuko da, hauen gai-zerrenda aurretik erabakiko da. Foroa hilero bilduko da, eta lehenengo saioan ikastaroaren egutegia emango dute.

Lekua: Villamonteko Kultur Etxea **Ordutegia:** Hilean astearte batez 19:00etatik 21:00etara

Iraupena: Hasiera: urriak 31 **Prezioa:** 5 €

Dinamizatzailea: Dominique Saillard **Eskakizuna:** *Emakumeen partaidetza politikoa* edo *Foro Irekiaren* aurreko edizioen batean parte hartu izana

Elkartasuna eta

trukea munduko emakumeekin lerroa

Munduko emakumeen literatura

Ekialde Erdiko, Asiako eta Afrikako egungo literatura ezagutu, irakurri eta aztertu behar dugu. Dote, sexu esplotazioa, fundamentalismoak, ablazioa, oinak bendatzea, erbestea edo inmigrazioa bezalako haien aurrean sentitzen edo pentsatzen dutena zuzenean entzungo dugu. Elkartasun eta biziraupenerako bere estrategiak ezagutuko ditugu. Bere abestiak entzungo ditugu, bere dantza eta erritmoak ikusiko ditugu eta munduko hainbat lekutako emakumeak gonbidatuko ditugu bere esperientziak eta jakituria gurekin partekatzeko.

Lekua: Villamonteko Kultur Etxea

Ordutegia: Astearte, 10:00etatik 12:00etara

Iraupena: Urriaren 24tik maiatzaren 29ra

Prezioa: 15 €

Irakaslea: Josune Muñoz

Lekua: Erromoko Kultur Etxea

Ordutegia: Osteguna, 19:30etatik 21:30etara

Iraupena: Urriaren 26tik maiatzaren 31ra

Prezioa: 15 €

Irakaslea: Marina Santa Coloma

Urtarriletik aurrera: Kultur arteko espazioa

Informazioa:

telefonoa 944 660 130 • ieizmendi@getxo.net

Aurreinskripzioa:

Aurreinskripzioa egiten duten emakume guztien artean zozketatuko diren plaza mugatuak. Aurreinskripzioa egiteko beharrezkoa izango da inprimakia betetzea Hiritarren Arretarako Bulegoetan edo udal webaren bitartez (www.getxo.net).

Partaide bakoitzak, gehienez ere, bi ikastarotarako aurreinskripzioa egingo du, eta lehentasun-ordena zehaztu beharko du, izan ere, plaza nahikorik egon ezean, bakar bakarrik egin ahal izango du. Horretaz gainera, interesa duten emakumeek Maitasuna ez *da kontatu ziguten bezalakoa* ikastaroan ere inskripzioa egin ahal izango dute, honen plazak mugatuak dira eta gainerakoak bezalaxe zozketatuko dira.

Bakarrik onartuko dira Getxon erroldatuta dauden emakumeak, plaza libreak izan ezik.

Oinarrizko Errenta jasotzen dutenentzat ikastaro bakoitzaren prezioa 5 eurokoa izango da.

Aurreinskripzio-aldia:

2006. urteko irailaren 20tik 28ra bitartean.

Plazak irailaren 29an goizeko 12etan zozketatuko dira Martikoena kaleko 16.ean. Eskutitz bana igorriko dizkiete onartutako guztiei, halaber, onartutakoen zerrendak ipiniko dira Erromoko eta Villamonteko Kultur Etxeetan, eta internet bidez ere begiratu ahal izango da Getxoko web orrian (www.getxo.net).

Matrikula:

Behin betiko matrikula formalizatzeko, beharrezkoa izango da **onarpen gutuna aurkeztea eta HAGedo HABetan ordainketa egitea.**

Matrikula-aldia:

2006. urteko urriaren 9tik 16a bitartean.

Aurreinskripzioa eta matrikula egiteko tokia:

Hiritarren Arretarako Bulegoak, ordutegia: 8etatik 14etara

Algorta: Juan Bautista Zabala kalea, 6 • Foru kalea, 1

Andra Mari: Benturillena, 17

Erromo: Aurrezki Kutxa kalea, 3

Hiritarren Arretarako Gunea: Ordutegia: 14etatik 20etara. Alango kalea, 25